

**PROYECTO EUROPEO INTEGRIM**
Migración internacional, integración y justicia social en Europa

2016-07-06 Deusto 06-07-2016

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Deustuko Unibertsitateko Errektore jaun txit gorena, Bilboko Udalaren zinegotzi jauna, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Dekanoa eta INTEGRIM proiektuaren koordinatzailea, SCRIBANI sareko koordinatzailea, SCRIBANI sareko kideak, ikerlariak, iheslariak, jaun andreok, arratsalde on. Good afternoon and be welcome to Basque Country. Eskerrik asko zuen gonbidapenagatik.

Europar kohesioaren alde egin duzuen lana eta erakutsi duzuen konpromisoa eskertzen ditugu.

Gaur INTEGRIM Programa honen asmoak, baita SCRIBANI sarearen konferentzia bi urtetik behin ospatzen den honen asmoak, ibilbidea, emaitzak eta ekarpenak hobeto ezagutzeko aukera eman diguzue. Argi dago, gaurkotasan osoa duen gai baten inguruan ari zaretela lanean. Argi dago, Europak erakusten duzuen lan eredia eta ekarpenak ezinbestekoak dituela.

Nire partetik, gaurko ekitaldi honetan, gure Herriak gai hau ondo ezagutzen duela azpimarratu nahi dut. Duela 80 urte, 1936garren urtean hain zuzen ere, uztailean baita ere, Gerra zibila hasi zen. Ondorioak ezagunak dira, oraindik ez dira zauri guztiak sendatu. Lehenagotik ere euskal gizataldeak ere etorkin bezela bizi izan zuen bere historian zehar.

Ondorio horien artean, berehalako bat: hemen bertan, gure artean, atzerrira joan behar izatea zer zen euskaldun askok ezagutu zuten. Herri txikia izanik, hemendik guztira 100 mila pertsona baino gehiago alde egin behar izan zuten eta hauetatik 19 mila umeak ziren. Euskadin, badakigu beraz migrazioen eta errefuxiatuen benetako errealitatea zer den.

Egun, Bigarren mundu gerratik izan den migrazio krisirik larrienaren aurrean gaude. Errefuxiatuek gure ongizatearen ahultasunaren isla dira. Hauek duela hilabete gutxi gure moduan bizi ziren eta, egun batetik bestera, ezer gabe topatzen dira, bere jaioterritik urrun.

INTEGRIM Programak gizarte berrikuntza du oinarrian, gaurko ekitaldian azaldutako erronkei aurre egiteko bide paregabea. Egun, berrikuntza

teknologikoa onartuta dugu, baina gizarte berrikuntzak ekar dezakeen ekarpena ere azpimarratzea dagokigu; ez soilik gizarte inbertsioaren ikuspegitik, baita ere garapen ekonomikoaren ikuspegitik ere.

Euskadin, elkarlanaren bidez gure esku dagoen guztia egin behar dugu eta, oinarrian, balioak daude. Oinarri horretan ideia bat: aniztasuna aberastasuna da. Gure gizartean ideia hau sustatzeko hezkuntzan, gizarte mailan eta sentsibilizazioan lan egiten jarraitu behar dugu. Gizarte kohesionatu baten alde, aniztasunak dituen onuraz jabetuz eta hortik sustatzen diren balioak landuz.

He comenzado recordando que somos un Pueblo de emigrantes, de personas que han buscado y encontrado refugio en otros lugares del mundo, hombres y mujeres, niñas y niños, familias que han sido acogidas y han encontrado oportunidades en otros Países.

En Euskadi conocemos bien esta realidad por experiencias y vínculos familiares muy directos y cercanos. Además, Euskadi es un País acogedor, respetuoso con las personas migrantes, con las personas refugiadas. Un País solidario, respetuoso con la diversidad y la pluralidad.

Esta es nuestra cultura de la convivencia. Nuestro proyecto de País tiene como centro a la persona. Este es el compromiso que compartimos, desde un ideario humanista y una voluntad de integración.

Creemos en la igualdad de oportunidades, la cohesión y la justicia social. Lo demostramos con hechos: el conjunto de las instituciones públicas, la Universidad y el sistema educativo, también el tercer sector con su implicación. Durante más de tres décadas hemos demostrado capacidad de trabajar juntos y compromiso compartido por aquello en lo que creemos, la integración, orientados siempre por el ideal de la justicia social.

Agradecemos su aportación. Trabajamos y debemos seguir trabajando para hacer realidad nuestra misión como gobernantes: un País abierto, con oportunidades en condiciones de igualdad para todas las personas, porque todas las personas somos iguales. Así de sencillo.

Egin duzuen lana eta zuen ekarpena eskertzen ditugu. Eredu bat zarete: elkarlanaren bidez gure gizartean elkartasunaren kultura areagotzen duzue.

Eskerrik asko denoi, thank you very much.